

Nekea arrisku faktore ezkutua da *in itinere* istripuetan

Larunbatean langile bat hil zen laneko istripuz. Artiach enpresako 36 urteko emakume langilea Zaratamon hil zen *in itinere* istripu batean, lanetik etxera zihoala. 21. istripu hilgarria Euskal Herrian urte hasieratik.

Lehenik eta behin LAB sindikatutik gure elkartasuna adierazi nahi diegu hildakoaren senide, lagun eta lankideei.

Lanetik etxera zihoala gertatutako istripua izanik, Lan Ikuskaritzak ez du bere horretan ikerketarik irekiko eta trafiko istripu arrunta balitz bezala kudeatuko dutelakoan gaude. Baina LAB sindikatutik argi utzi nahi dugu *in itinere* istripuak, lan istripuak izaki, kontrolagarriak direla neurri handi batean.

Datu ofizialek eurek bistan uzten dute Euskal Herriko lan istripu hilgarriaetako asko *in itinere* direla. Mugikortasun berezitasunetik haratago badaude istripu hauek sortzen dituzten faktore gehiago. Larunbat goizaldean gertaturiko istripuak gako garrantzitsuak eskeini dizkigu kausetako batzuk azaleraziz. Istripua goizeko 6:00etan gertatu zen, gaueko txanda amaitu eta gero. Gaueko txanda amaitzean, nekea arrisku faktore garrantzitsua da. Ba al dago arrisku faktore garrantzitsu hau enpresaren arrisku ebaluaketan identifikatua? Integratu al da neurri prebentiborik hau kontrolatzeko? Ba al du enpresak mugikortasun planik? Honi lotu behar zaio langilea behin behineko kontratupean zegoela.

Hau azpimarraturik, OSALANek zein Ikuskaritzak betebeharrak garrantzitsuak dute *in itinere* arriskuen inguruan, herrialdeko istripu intzidentzia haintzat harturik. Administrazioak berak *in itinere* istripuak ez baditu ikertzen, enpresek ere ez dute hauek kontrolatzeko neurririk hartuko. Beraz, OSALANi exijitzen diogu jar dezala abian *in itinere* istripuak kontrolatzeko kanpaina eta mugikortasun planak integratu ditzala lehenbailehen. Neurri hauen integrazioak *in itinere* istripuen indizea neurri handi batean kontrolatuko lukeelako.

LAB sindikatuak modu zorrotzean jarraituko ditu egoera guztiak eta beharrezko ekintzak eramango ditu aurrera patronalak berea den ardura bete dezan.

Modu honetan, Artiach-ko LAB, ELA eta ESK-k biharko, apirilaren 26rako, Orozkoko enpresaren aurrean 13:00etan deitutako mobilizazioan parte hartzeko deialdiarekin bat egiten dugu, gonbitea langile orori zabalduaz.

Euskal Herrian, 2022ko apirilaren 25ean